

Joan den ostiralean Mercedes Benzeko ordezkari sindikalek enpresaren gonbidapena jaso genuen aldi baterako laneko 100 kontratu Mercedeseko mugagabe bihurtzeko ekitaldi batean parte hartzeko. Bistan denez, albiste horiek beti izango dira positiboak, batez ere aukeratutako pertsonentzat.

Hala ere, batzordeak, talde guztien aho bateko babesarekin, uko egin dio gonbidapenari, hiru arrazoiengatik:

- **ABLE bidezko kontratazio-eredu berria arbuiatzen dugu:** gaur egun ekoizpen langileen heren bat baino gehiago (1.600 pertsona baino gehiago), ABLEkoak dira. Pertsona hauek egoera zaurgarriago eta prekarioagoan daude, ez bait diete behar bezala ordaintzen, ez diete lan egiteko bitarteko egokirik ematen, egun batetik bestera deitzen diete, lanpostura sartzeko arazoak ere badituzte... guzti horri beraien enpresan sindikalki antolatzeke ezintasuna dutela gehituta.
- **Hautaketan irizpide eta gardentasun falta arbuiatzen dugu:** orain dela 4 urte, batzordetik behin-betiko egiten diren pertsonak aukeratzeko orduan irizpide objetiboak eta egiaztagarriak izatea exijitu dugu. Hala ere, ez dago horrelako irizpiderik, eta, entxufismoaren irizpidearen menpe jarraitzen dugu, langile onak izanda, finko izateko inolako aukera ez duten pertsonak daudelarik, beste mota bateko irizpideak lehentasuna bait dute: norbaiten lagun, ezagun, familia... izatea.
- **Sindikatu batzuek modu mafiosoan jarduten jarraitzea gaitzesten dugu:** Ustezko "sindikalistak" behin-behineko kontratua duten pertsonetara hurreratzen direnak, orain ABLE-an daudenak, "afiliatu eta behin-betiko egingo zaitugu" xantaia zahar eta kaskarra erabiliz, plantilla gisa hori egiten dutenei aurpegiatu beharko geniekeena. Jokabide mafioso horretan, zalantzarik gabe, enpresak ere badu bere erantzunkizuna, gardenak izan nahi dutela eta iraganeko dinamikak lurperatu nahi dituztela esan arren, zentzu horretan ez dira gardenak, jokabide mafioso horiek saihesteko baliabiderik ere ez bait dute jarri.

Horregatik, oporren aurretik egin zuen bezala, enpresak egin nahi duen aurpegi-garbiketaren parte ez izatea eta konplize ez izatea erabaki dugu. Pozten gara 100 pertsona horiengatik, baina ABLEen bidez beste 1.500 kontratatuak izatearen aurka gaude, eta denek behin-betiko kontratu bat izateko aukera berdina ez izatearen aurka ere, bidezko irizpideak, objektiboak, justuak, parekideak eta gardenak ez bait dira ematen.

100 mugagabe gehiago ditugu, baina 1.500 prekarioekin.

El pasado viernes, los representantes sindicales de Mercedes Benz, recibimos una invitación por parte de la empresa para participar en un acto hoy, 15 de septiembre, de conversión de 100 contratos de ETT a contratos indefinidos de Mercedes. Evidentemente siempre van a ser positivas estas noticias, sobre todo para las personas elegidas.

Sin embargo desde el comité, con el apoyo unánime de todos los grupos sindicales, hemos declinado la invitación por tres motivos:

- **Rechazamos el nuevo modelo de contratación por ETT:** Más de 1/3 de la plantilla de producción (más de 1.600 personas), hoy son de ETT. Personas que se encuentran en una situación más vulnerable y precaria, pues no les pagan correctamente, no les dan los medios adecuados para trabajar, les llaman de un día para otro, incluso tienen problemas para acceder a su puesto de trabajo,... todo ello además con la imposibilidad de organizarse sindicalmente en su empresa.
- **Rechazamos la falta de criterios y transparencia en la selección:** Desde hace 4 años desde el comité hemos exigido que existan criterios objetivos y contrastables a la hora de seleccionar a las personas que se hacen indefinidas. Sin embargo, no existen dichos criterios, con lo cual seguimos expuestos al criterio del enchufismo y a que haya personas que, siendo buenas trabajadoras, no tengan ninguna opción porque priman criterios como: ser amigx de, conocidx de, familia de,...
- **Rechazamos que haya sindicatos que sigan actuando de forma mafiosa:** Supuestos "sindicalistas", que asaltan a las personas con contrato eventual, ahora de ETT, bajo el viejo y casposo chantaje del "afíliate y te hacemos fijo", que como plantilla deberíamos reprochar a los que lo hacen. Un comportamiento mafioso en el que, sin duda, la empresa tiene parte de responsabilidad, pues pese a decir que quieren ser transparentes y enterrar dinámicas del pasado, en este sentido ni son transparentes, ni han puesto medios para evitar estos comportamientos mafiosos.

Por ello, hemos decidido no formar parte, ni ser cómplices del lavado de cara que quiere hacerse la empresa, al igual que hizo antes de vacaciones. Nos alegramos por esas 100 personas, pero estamos en contra de tener a otras 1.500 contratadas por ETT, y en contra de que, todas ellas no tengan las mismas posibilidades de optar a un contrato indefinido, por la ausencia de unos criterios justos, objetivos, igualitarios y transparentes.

Tenemos 100 indefinidos más, pero con 1500 precarios.